



IDAZKERA ETA IDATZITAKOIA



LAGUNTZEN DU:



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Testuak:

Eloisa Navajas Twose
José Antonio Sainz Varela

Diseinua eta maketazioa:


Sinbait S.C.

AURKEZPENA



«Idazketa eta idatzia» lantegi didaktikoak aukera emango dizu jakiteko noiz eta zergatik sortu zen idazketa, eta nola-ko bilakaera izan duen aparteko asmakizun horrek gaur egun arte. Ulertuko duzu idazketa garatzearen eta kultura hedatzearen artean den ezinbesteko lotura, eta lotura horrek nola markatu dituen zibilizazioak historian, haien gizarte-antolamenduan eragina izanik.

Idazketaren historia ezagutzeaz gain, kaligrafia landuko duzu duela hainbat mende idazteko erabiltzen ziren zenbait material erabiliz. Gaur egun, material horiek ez dira erabiltzen, haien ordez metodo azkar, eroso edo merkeagoak erabiltzen hasi zirelako.




Iraganeko aztarna idatziak artxiboetan gordetzen dira gaur egun, denbora luzez gordeko eta datozen belau-naldiei helaraziko zaizkiela ziurtatzeko. Artxiboetan dauden dokumentuak oinarri dira ikerketa historiko, linguistiko, soziologiko eta antzekoetarako, bai eta gure komunitatearen oroitzapen kolektiboa funtsezeko ere.


Azkenik, ikusiko duzu artxibozainek nola irakurtzen, zaintzen eta zabaltzen dituzten dokumentuak; zein zaharberritze teknika diren erabilienak; eta teknologia berriek nola eragin dieten artxiboetako lan metodoei.

ARABAKO PROBINTZIA-ARTXIBO HISTORIKOA

Arabako Probintzia-Artxibo Historikoa (APAH) Estatua-ren artxiboa da, eta Arabako Foru Alkdundiak kudeatzen du zuzenean. 1931ko azaroaren 12ko Dekretu bidez sortu zen, baina 1946an eman zitzaizkion berarentzako lokalak Ramiro de Maeztu Bigarren Hezkuntzako Institutuan, gaur egun Legebiltzarraren egoitza den eraikinean. 1976. eta 2004. urteen artean, artxiboa Floridako ibilbidean den Gasteizko Kultura Etxean izan zen, Probintziako Liburutegi


Publikoa zegoen eraikin be-rean. 2004an, artxiboa gaur egun dagoen tokira eraman zen, alegia, Zumakadi ibilbidera. Eraikina bereziki diseinatu zen artxiboa hartzeko. Gordailuentzako hogeita bost kilometro linealeko edukiera du, digitalizazio lantegia, zaharberitze laborategia, ekitaldi aretoa, gela didaktikoa eta bestelako ekipamendu teknikoa. Horrek guztiak, bere generoan, Euskal Herriko erakunde kultural garrantzitsuenetako bihurtu du.





APAH aldi berean da artxibo historikoa eta bitarteko artxiboa. Zer esan nahi du horrek? Instituzio eta erakunde ofizialek (Administrazioa) dagoe-neko ez dituztenean behar dokumentu jakin batzuk, artxibora bidaltzen dituzte, eta han «bitarteko» moduan erabakiko da ea betiko gordeko diren, balio historikoa dutelako, edo ea suntsituko diren, dokumentuak lekua hartzeko bakarrik pilatu ez daitezen. Artxiboan gordeta dagoen dokumentu funts garrantzitsuena «notario protokoloena» da. Arabako notarioek Arabako Lurralde Historikoan egin diren kontratu guztiak idatziz jaso zituzten, eta funts horretako liburuetan biltzen dira. Kontratu horiek izan ziren, esate baterako, emakume ezkongaienezako ezkon-saria eratzekoa, enpresa bat sortzekoa edo testamendu bat ematekoa. 1507. urtetik gaur egun arteko kontratuak biltzen dira.

APAHren eginkizun nagusia da, beraz, Arabako dokumentu ondarea bildu eta zaintzea, bai eta ondare hori herritar guztien artean libreki eta doan zabaltzea ere. Horretarako, artxiboak erabiltzaileen eskura jarri ditu bere datu baseak Interneten, Espainiako Artxiboen Atarian (Portal de Archivos Españoles, <<http://pares.mcu.es>>). Erabiltzaileek hantxe dituzte artxiboren milaka erregistro eta irudi digitalak, artxibora bertara joan beharrik gabe.



01

IDAZKETAREN SORRERA



- LANTINDAR
- ▨ ZIRILIKO
- ▩ TXINARRA
- ▤ ABUGIDARRA
- ARABIARRA



Hizkuntza eta idazketa ez dira gauza bera. Gaur egun, 6.000 hizkuntza inguru dago munduan, baina 19 idazketa sistema baino ez. Hedatuena dagoen idazketa sistema alfabeto latindarrean oinarritutakoa da.

Idazketa gizakiaren asmatzea da; eguneroko bizitzan laguntzen dion tresna da, gorpila, goldea edo ezpata izan diren bezala. Gizakiak oinarritzko hizkuntzen bitartez komunikatu izan dira elkarren artean duela 75.000 urte ingurutik hona. Duela 5.500 urte, baina, ez ziren gai izan hitz egiten zutena erregistratzeko modua asmatzeko. Arkeologoek oraindik ez dute aurkitu data hori baino lehenago idatzitako objekturik, gutxienez. Une horrek markatu zuen historia deritzogunaren hasiera.

Idazketaren bilakaera saiatze eta hutsegite fenomenoak izan da, gizateriak duela milaka urtez geroztik esperimentatzen duena. Ez da aurrerapen erraza, eta idazketa menderatzeak markatu du zibilizazio batzuk beste batzuen gainetik igo izana.

Lotura argia dago zibilizazioaren garapenaren eta idatzizko kulturaren garapenaren artean. Idazketa sistemarik garatu ezin izan duten kulturek hainbat ondorio jasandituzte:

- Ezin izan dituzte transmititu modu eraginkorrean beren esperientziak eta pentsamenduak belaunaldi batetik bestera.



- Ez dute izan ideiak helarazteko bide azkarrik, gizakien migrazio mugimenduak alde batera utzita.
- Ez dira gai izan gobernu eta ekonomia garaturik sortzeko.

Lehendabiziko idazketa sistemak logografikoak izan ziren: hain zuzen, piktogramak edo ideogramak. Ikur grafiko bakoitzaren xedea objektu edo ideia bat adieraztea zen. Sistema soilak dira, eta oso erabilgarritasun argiarekin sortu ziren; esate baterako, salgaien inbentarioa egiteko. Idazketa sistema horrek muga handiak zituen eta, horregatik, ez ziren gai oso pentsamendu landuak irudikatzen.

SINAITIKOA / HIEROGLIFO

𐤀 𐤁 𐤂 𐤃 𐤄 𐤅 𐤆 𐤇 𐤈 𐤉 𐤊 𐤋 𐤌 𐤍 𐤎 𐤏 𐤐 𐤑 𐤒 𐤓 𐤔 𐤕 𐤖 𐤗 𐤘 𐤙 𐤚 𐤛 𐤜 𐤝 𐤞 𐤟 𐤠 𐤡 𐤢 𐤣 𐤤 𐤥 𐤦 𐤧 𐤨 𐤩 𐤪 𐤫 𐤬 𐤭 𐤮 𐤯 𐤰 𐤱 𐤲 𐤳 𐤴 𐤵 𐤶 𐤷 𐤸 𐤹 𐤺 𐤻 𐤼 𐤽 𐤾 𐤿

ANTZINAKO FENIZIOA

𐤀 𐤁 𐤂 𐤃 𐤄 𐤅 𐤆 𐤇 𐤈 𐤉 𐤊 𐤋 𐤌 𐤍 𐤎 𐤏 𐤐 𐤑 𐤒 𐤓 𐤔 𐤕 𐤖 𐤗 𐤘 𐤙 𐤚 𐤛 𐤜 𐤝 𐤞 𐤟 𐤠 𐤡 𐤢 𐤣 𐤤 𐤥 𐤦 𐤧 𐤨 𐤩 𐤪 𐤫 𐤬 𐤭 𐤮 𐤯 𐤰 𐤱 𐤲 𐤳 𐤴 𐤵 𐤶 𐤷 𐤸 𐤹 𐤺 𐤻 𐤼 𐤽 𐤾 𐤿

FENIZIOA

𐤀 𐤁 𐤂 𐤃 𐤄 𐤅 𐤆 𐤇 𐤈 𐤉 𐤊 𐤋 𐤌 𐤍 𐤎 𐤏 𐤐 𐤑 𐤒 𐤓 𐤔 𐤕 𐤖 𐤗 𐤘 𐤙 𐤚 𐤛 𐤜 𐤝 𐤞 𐤟 𐤠 𐤡 𐤢 𐤣 𐤤 𐤥 𐤦 𐤧 𐤨 𐤩 𐤪 𐤫 𐤬 𐤭 𐤮 𐤯 𐤰 𐤱 𐤲 𐤳 𐤴 𐤵 𐤶 𐤷 𐤸 𐤹 𐤺 𐤻 𐤼 𐤽 𐤾 𐤿

ANTZINAKO GREKOA

Α Β Γ Δ Ε Ζ Η Θ Ι Κ Λ


LATIN KLASIKO

A B C D E F G H I K L

ERDI AROKO LATINA

A B C D E F G H I J K L

Ordotik aurrera, fonetizazioa deritzon fenomenoak sortzen hasi zen. Hots, ikurrek ez zuten, ordotik aurrera, objektu edo ideiarik irudikatuko; zuzenean soinuak adierazten zituzten, eta silaba soinu bakoitzarentzat irudi bat marrazten zuten. Silaba irudi horien multzoari silabario esan zitzaien. Horren adibide dira Sumerko ikur kuneiformeak edo Egip-toko hieroglifikoak.



Ikurren bilakaera erakusten duten adibideak

- A («alif», idia).
- B («bait», etxea).

Sistema hura asko hobetu zen kontsonante eta bokal bakoitza adierazteko ikurrak asmatu zirenean. Ikur haiek elkarren artean konbina zitezkeen, fonema posible guztiak sortzeko. Sistema horiei alfabeto deritze.

Alfabeto feniziarrek kontsonanteak baino ez zituen, eta bokalak adierazteko letrei puntu eta zeinu diakritikoak


eranstean zitzaizkien. Alfabeto greziarrak feniziarra hartu zuen oinarri, baina bestelako letrak —bokalak— gehitu zituzkien eta, horrela, historiako lehendabiziko alfabetoa sortu zuten.

Alfabeto greziarra abiapuntu hartuta, alfabeto latindarra agertu zen; hain zuzen, guk gaur egun erabiltzen duguna.



02


MESOPOTAMIA, EGIPTO ETA ERROMA



Zentzu hertsian, ezagutzen den idazketa antzinakoena kuneiforme sumertarra da, k.a. 3200. urte ingurukoa. Buztinezko oholtxoetan igarri da gaur egunera. Buztina oraindik heze eta bigun zegoenean, marratu egiten zen metal, boli, hezur edo zurezko ziriarekin. Grabatu ondoren, eguzkitan lehortzen ziren, edo labean egosten.

Buztin zatiak, normalean, lauak izaten ziren idazten zen aldetik, eta ganbilak beste aldetik. Forma horrek errazago egiten zuen buztin zati horiek hormetako tarteetan edo horma hobietan gordetzea. Tarte edo hobi horiek izan ziren lehendabiziko artxiboak. Oholtxoek bizkarretan idatziz jartzen zituzten barruan zer zuten adierazten zuten datuak. Hortaz, idazketarekin batera, dokumentuak sailkatzeko lehenengo moduak sortu ziren.

Oholtxoak, funtsean, kontabilitate eta administrazio egin-kizunetarako baliatzen ziren.



Hala ere, material hura astuna, garraiatzeko zaila eta oso hauskorra zen, eta ez zuen laguntzen idazketa garatzen pentsamendua adierazteko tresna gisa.

Buztinarekin batera, ostraka (zeramika zatiak) edo beira erabili ziren, besteak beste. Material horiek grabatzen ziren, azken egosaldia eman aurretik.



Egiptok bi ekarpen handi egin zituen idazketaren mundura: alde batetik, papiroa sartu zuen, idazteko euskarri gisa erabiltzeko; eta, bestetik, idazketa hieroglifikoaren erabilera. Papiroa landare bat da, eta Mediterraneoko leku heze eta beroetan hazten da. Papiroa idazteko euskarri izan zedin prestatzeko, zurtainaren erdialdea baliatzen zen, ebakidura trianguluarra zuena. Xafletan mozten zen, eta xaflek bata bestearen gainean elkarrekin gurutzatuta jartzen ziren ohol busti baten gainean. Geruzak sortzen ziren horrela, eta hori izaten zen papiroaren bilbe bereizgarria. Gero kolpeak ematen zitzaizkion, zapaldu eta eguzkitan lehortzen zen. Lautzeko, bolizko objekturen bat edo moluskuen oskola erabiliz



leuntzen ziren. Horrela egiten ziren orriak elkarrekin lotzen ziren. Horretarako, ura, irina eta ozpina nahastuta egindako itsasgarria erabiltzen zen, eta orri bakoitzaren eskuineko ertza hurrengo orriaren gainean jartzen zen, errazago izan zedin, idaztean, kalamua orri batetik bestera pasatzea.

Gorde den papiroan idatzitako dokumentu zaharrena dinastia egiptoarraren garaikoa da, k.a. 3000. urte ingurukoa.


Papiroak kiribilduta gordetzen ziren zurezko edo buz-tinezko kutxatilen barruan. Biribilkiaren mutur batean zintzilik izaten zen kartela edo xafla bat, eta han idazten zen obraren egilea eta izenburua.

Papiroaren gainean brotxa edo pintzel fin batez idazten zen, bai eta punta zorrozdun kanaberaz ere; hots, kalamuaz.

Papiroak bidea eman zuen idazketa ugaritu eta heda zedin, aleen kopiak egitea eta banatzea errazten baitzuen. Kopiak artxibo eta liburutegietan gordetzen hasi ziren. Alexandriako liburutegi handia k.a. III. mendearen hasieran sortu zen, eta 700.000 liburu-ki izatera iritsi zen. Papiroaren erabilera Grezia eta Erromara esportatu zen, eta idazteko euskarri preziatuena izan zen, nahiz eta material urria eta oso garestia izan. Azkenean, pergaminoak hartu zuen papiroaren tokia. Hala ere, papiroa Goi Erdi Arora arte baliatu zen, baina oso erabilera urria izan zuen azken garaian.

KANABERA EDO IDAZLUMA MOZTEKO

1. Labana edo kuter bat hartu.




2. Kanabera edo idazluma luzetara moztu, hiru bat zentimetro, muturreraino.



3. Ebaki horren erdia beheratu, muturreraino: muturrean azalera laua geratu behar da.




4. Kanabera edo idazluma azalera gogor baten gainean jarri eta luzetarako zentimetro eta erdiko ebaki bat egin, muturreraino. Azalera oraindik oso lodia delako ezin bada ebakia egin, beheratu egingo dugu, hirugarren puntuan bezala.




5. Jarraian, kanabera edo idazlumaren alboak ebaki behar dira, puntari nahi dugun zabalera emateko: marra lodiak egin nahi baditugu, lodiagoa; marra finak nahi baditugu, estuagoa. Hirugarren puntuan aipatutako luzetarako ebakia beti erdian geratu behar da.



6. Kanabera edo idazluma azalera gogorren gainean jarri eta ebaki zeharra egin puntan, guztiz zorrozteko.





Erromak aurreko kulturetatik hartu zituen idazteko askotariko euskarriak, hala nola, harria (marmola, granitoa, basaltoa eta abar) eta metalak (kobrea, bereziki). Papiroa Erroman ere erabili izan zen, baina dokumentu garrantzitsuenetarako bakarrik. Esparru publikoan zein pribatuan idazteko euskarri erabiliena argizarizko oholtxoa izan zen (sumertarren eta egiptoarren garaian ezagutzen zuten, dagoeneko), ugariagoa zelako, egiteko eta garraiatzeko errazagoa zelako eta, batez ere, askoz merkeagoa zelako.




Zurezko oinarria zen, argizariz estalia, eta horren gainean estiloaz idazten zen. Estiloak punta zuen muturretako batean, idazteko, eta kamutsa zuen beste muturra, espatula itxurakoa, idatzitakoa ezabatzeko. Hortaz, oholtxoak nahi beste aldiz berrerabil zitezkeen.

Argizarizko oholtxoak elkarrekin lot zitezkeen liburuak osatuz, edo helduleku bat jar ziezazkien eta handik eseki; horrela gordetzen ziren artxi-boetan (tabulariumetan).



Pergaminoa Antzinaroan ere erabili izan zen, baina Erdi Aroan hedatu zen. Pergaminoa animalien larrua da (normalean txahal, ahuntz, ardi edo ahariarena), eta tratatu egiten da, idazteko euskarri gisa erabili ahal izateko. Oso kalitate oneko pergaminoa da bitela, oraindik jaio ez den animaliaren (umekia) larrutik lortzen dena.

Larrua uretan jartzen zen eta, gero, kare esnea botatzen zitzaion. Horrek laguntzen zuen epidermisa kentzen, ez usteltzen eta biloa errazago kentzen. Ondoren, larruazalpeko ehuna arraspatzen zen. Behin larrua geruza fin eta garbi bihurtu eta gero, luzatu eta tenkatu egiten zen egitura baten gainean. Han, tantak isurtzen zitzaizkion eta altzaruzko xaflez arraspatzen zen. Jarraian, urez eta kare hautsez bustitako trapua gainerik pasatzen zitzaion. Hori guztia hainbat aldiz egiten zen, kolageno zuntzak berrordenatzen ziren arte, horrek ematen baitzion pergaminoari itxura berezia. Larrua egituratik kendu, asto gainean jarri eta lehor zegoela arraspatzen zen xa-




fla makurrekin, are fin eta leunago egiteko. Azkenik, apar harriarekin akabera ematen zitzaion.

Pergaminoak, azkenean, papiroa ordezkatu zuen; izan ere, abantaila handiak zituen, papiroarekin alderatuta:

- Bi aldeetatik idazteko aukera ematen zuen.
- Gogorra zenez, koaderna zitekeen; horri esker, liburu formatuak hartu zuen papiro biribilkiaren tokia.
- Karraska zitekeen; horrek, aukera ematen zuen idatzitakoa ezabatzeko eta beharrezko zuzenketak egiteko. Idatzitakoa guztiz ezaba zitekeen hala nahi izanez gero, eta pergamino berrerabili. Izan ere, kostu handia zuen euskarri hark: egin diren kalkuluen arabera, 400 orriko liburu bat idazteko 100 abelburu hil beharra zegoen.

Papiroan edo pergaminoan, aurreko testu bat ezabatu edo karraskatu ondoren horren gainean idatzitako eskuizkribuei palinpsesto deritze. Euskarri horietan, ezabatutako testua irakur daiteke argitara begiratuta edo lanparak erabiliz.

Pergaminoak aurrerakuntza handia ekarri zuen idazteko artera. Izan ere, leuna eta sendoa zenez, errazago egin zuten hegaztien luma erabiltzea (nagusiki antzararena, malguagoa baita). Luma idazteko tresna gisa erabiltzeko prestaketa kalamuaren antzekoa zen (lehen ikusi dugu), eta lekua kendu zion, pixkanaka, askoz erabilerrazagoa eta arinagoa baitzen kalamua baino. Idazteko tresna berri hark eragin zuen letra gotiko librariora ager zedin, aurreko idazkera bilakatuta.



LETRA GOTIKOA LIBURUKOIA

A B C D E F G H I J K L
M N O P Q R S T U V W
X Y Z

a b c d e f g h i j k l m n o p
q r s t u v w x y z

Saiatu idazten kalamuarekin

La letra gótica evoluciona a partir de la letra carolina al sustituir el cálamo por la pluma de ave, que dibuja formas angulosas con trazos gruesos y finos. En el siglo XIII la escritura gótica se extiende por toda Europa.

Cum p̄fecto dñs ita r̄p̄sum
 c̄mp̄avit futū. ut i hominē
 qui misericordiam faceret cuilibet
 p̄ximū doceret. i tam hoc
 eadem parabola ipsum dī filium
 qui p̄ nob̄ p̄ humanitate p̄xi-
 mus fieri dignatus ē designa-
 ter. Neq̄ em̄ ita p̄ximū quē
 sic nos diligēte iubemur. sup̄
 xp̄o interpretari debemus. ut
 moralia mutue fraternitatis in-
 stituta sub allegorie regulis ex-
 tenuare i auferre conemur.
 Suspicions aut̄ ihs. dix. ho-
 mo quidā descēdebat ab ihe-
 rusalem in ierico. Luc. 10.
Homo iste adam inteli-
 gitur. in gene b̄amano
 Iherlm̄ civitas pacis illa celesti

Conoulucaio. n̄. u. q̄. s̄. a. s̄.
 du. no. du. no. p̄. du. no.
 saluacose qual du. no.
 q̄. d. na. ho. no. se. Equa l.
 du. no. ca. tr. el. Et la
 mundacione. cono
 p̄. a. se. cono. sp̄. s̄. c̄. o.
 et. no. s̄. s̄. e. u. lo. s̄. de. lo. s̄. e. u.
 & lo. s̄. p̄. e. a. no. s̄. c̄. o. m̄. p̄. e. s̄.
 a. u. l. s̄. e. b̄. i. q̄. o. s̄. e. r. e. h̄. e.
 t̄. n̄. a. c̄. e. l. e. l. a. s̄. u. a. s̄. e. c̄. e.
 q̄. a. u. d̄. i. o. s̄. a. s̄. e. q̄. u. i. t̄. a. m̄. p̄.

Donemiliago glosak eta Arabako Ar-
txibo Historiko Probintzialeko agiriak

factus est s̄. M̄. agnificat
Tvere dñe ip̄m̄ o. i. o.
 tuū. i ab omnibus
 peccatis clementer e-
 munda. quia nulla ei

peruenire cor
Ubi bene d̄
 Quia in
 medio mari

Tintarik zaharrena Kristo au-
 rreko 2.600. urtean sortu zen,
 Txinan. Tinta egiteko, kearen
 edo ikatzaren beltza nahas-
 ten zen ur aglutinatzaileare-
 kin eta gomarekin. Oso tinta
 egonkorrak dira, eta ez dira
 erraz moteltzen. Koloretako
 tintak pigmentu mineralak
 erabiliz lortzen dira, oro har:
 gorria erabiltzen da hasierako
 letrak apaintzeko, eta minioa
 (berun oxidoa) edo zinabrioa
 edo bermiloia (merkurioa)
 erabiliz lortzen da; urdina la-
 pis lazulia erabiliz lortzen da;
 berdea, malakita baliatuz;
 eta, horia, oropimenea era-
 biliz. XIV. mendetik aurrera,
 metal eta azidoz egindako
 tinta erabiltzen hasi zen. Me-
 tala sartu zen (burdina, nor-
 malean), eta azidoak finkatze
 lana egiten zuen. Tinta horiek
 erraz herdoiltzen dira, eta oso
 korrosiboak dira paperaren-
 tzat; zulatu egiten dute.

04

ARO MODERNOA




Txinatarrek k.a. II. mendean asmatu zuten papera, eta bererabilitako trapu eta oihalekin egiten zuten. Arabiarrek Europara ekarri zuten X. mendean, eta paperaren fabrikazioa hobetu zuten (zuriago eta gogorrago egin zuten). Espainian, ezagutzen den papera egiteko lehendabiziko lantegia Xativan (Alacant) sortu zen, 1150. urtean. Papera egiteko, trapuak uretan hartitzen uzten ziren, eta jo egiten ziren, ore fina lortzeko. Handik ateratzen zen orea bahetik edo elkarren artean gurutzatutako hariz egindako formadoretik iragazten zen. Sortzen zen mintz fina feltro baten gainean zabaltzen zen, gero, lehor zedin. Orri haiek prentsatu egiten ziren, lautzeko eta, jarraian, banan banan

kolaz itsasten ziren. Paperak, azkenean, pergaminoren lekua hartu zuen, eta idazteko euskarri erabiliena bihurtu zen. Abantaila

handiak ditu paperak: papera fabrikatzea ez da hain neketsua; errazago idazten da, idaztea arintzen eta bizkortzen duelako; eta, pergami-




Europar papera sartzeko bidea



minoak bezala, bi aldeetatik idaztea ahalbidetzen du, eta liburu formatuarekin antolatzearazten.

Europar, XV. mendean, inprimategia sartu zen, eta horrek paperaren erabilera zabaldu zuen, euskarri horrek baititu ezaugarri hoberenak inprimatzeko. Pergaminoak, dena dela, gero ere iraun zuen, dokumentu garrantzitsuetarako eta liburuen luxuzko argitalpenetarako euskarri gisa.





REIG



Paperezko orrietan fabrikatzailearen marka jartzen zen, filigrana zeritzona, eta papera argitara begiratuta ikus daiteke.



XVIII. mendetik aurrera, papera egiteko trapuak urri zeuden, eta, beraz, bestelako lehen-gaiak erabili behar izan zituzten; besteak beste, zura. Zura-ekin, baina, kalitate txikiagoko papera sortu zuten, oso herdoilkorra eta hauskorra.

Idazteko erabiltzen ziren materialei dagokienez, hegaztien lumaren erabilera zabaldu zen, eta behin betiko desagerrarazi zuen, horrek, kalamua. Horri esker, idazkera dotore eta biribilagoa egitea lortu zen. Ertzak eta ertz askoko formak desagertu ziren: letra

gotiko prozesala zen, eta nagusi izan zen Aro Modernoan, hasieratik, XVII. mendean letra endekatua sartu zen arte.

Hemen txertatuko dira letra gotiko prozesalaren eta endekatuaren irudiak.

Nolanahi ere, XVIII. mendean altzairuzko lumatxoak ere agertu zen. Hegaztien lumaren antzeko punta zuen, baina biltegi txiki bat ere bazuen. Horrek, aukera ematen zion tinta tanta bat gordetzeko, tintontzian sartzen zenean. Mende hartan agertu zen arkatza ere, gaur egun ezagutzen dugun moduan (barrualdea grafitozkoa, eta zurez estalia); tresna bereziki egokia, marrazketa eta diseinurako.




LETRA GOTIKOA AUZIBIDEKOA

aa. bb. cc. dd. ee. ff. gg. hh. i. j. kk. ll.
mm. nn. oo. pp. qq. rr. ss. tt. uu. vv. ww. xx.

Saiatu idazten hegazti lumarekin

Juan de yciar vizcayno lo escrivano En caragoca
En el año del amor de 1021 vij ::




LETRA ETZAN

A A B B C D D E E F F
G G H H I I L L M M N N
O P P Q R R S T T U U X X Z Z

A a. bb. cc. dd. ee. ff. gg. hh. ij. k. ll. mm. nn. oo.
pp. qq. rr. ss. tt. uu. xx. yy. zz :~

Saiatu idazten hegazti lumarekin

No ay peor sathanas que' el que' piensa que' es tan bueno q
quiera gozar lo azeno pensando que' alli no ay Mas :~



Ezaugarri nagusi izan zuen papera egiteko prozesua mekanizatu zela, eta materia eta prozedura berriak bilatu zirela, paperaren ekoizpena merkatzeko eta gehiago ekoizteko, lehengaiak gero eta gehiago eskatzen zirelako eta agortzen ari zirelako.

XIX. mendearen erdialdetik aurrera paper berreskuratua erabiltzen hasi zen (paper zurien hondakinekin egina), bai eta paper birziklatua ere (paper erabiliak garbitu egiten ziren, berriz erabiltzeko). Bi paper motak kalitate txikikoak ziren, lixiba eta bestelako kloratuak erabiltzen zirelako garbitzeko. Horrek ahulago egiten zuen papera eta, ondorioz, ezin zen denbora luzez gorde.

Idazteko tresnak, dena den, asko hobetu ziren: altzairuzko lumari tinta biltegia jarri zitzaion («luma estilografiko» berria), eta horrek ahalbidetzen zuen tintontzia baztertzea eta orbanik ez egitea. Horri esker, idazketa askoz garbiago egitea lortu zen.

XX. mendean bolaluma agertu zen. Lumaren muturrean bolatxo bat jarri zitzaion. Bolatxoak tinta dosifikatzeko zeregina zuen, paperean zehar mugitzen zen eta aukera ematen zuen gordailua behin eta berriz kargatu beharrik gabe idazteko (luma baino eroso, azkar eta merkeagoa zen). Horrekin batera, errotuladorea ere agertu zen: zuntz akrilikozko punta fina zuen, eta tinta jariatzen zuen kapilaritatearen bitartez. Pigmentu sintetiko eta erretxinaz erabiltzen diren tintak (akrilikoak) oso egonkorak dira, eta ia ez dira hondatzen.


LETRA INGELESA

A B C D E F G H I J K
L M N O P Q R S T U V
W X Y Z

a b c d e f g h i j k l m n o p q r s t u v w x
y z


Saiatu idazten hegazti lumarekin

La letra inglesa es una estilo cursivo, especialmente para mayúsculas, inventado en el siglo XVII en Inglaterra y extendido más tarde por todo el mundo, gracias a la extensión de la pluma metálica.



Paperaren etsaiak bi motatakoak izan daitezke:


- Batzuk paperaren beraren osaeran daude: esate baterako, zuraren ligninak papera herdoiltzen du, edo zelulosa ugari edukitzeak intsektuak eta mikroorganismoak erakartzen ditu.
- Beste batzuk kanpoan daude: nagusiki, karraskariak, intsektuak eta ondokoak. Bi etsai mota horiek, gainera, eragin kaltegarriagoa izan dezakete baldin papera iraunarazteko baldintzak ez badira egokiak: normalean, hala izaten da oso tenperatura eta hezetasun handia dagoenean.



Arazo horiek konpontzearren, artxibo batzuek zaharberritze tailerra dute. Lantegi horretan dokumentuak «sendatzen» eta konpontzen dira, guztiz honda ez daitezten.

Hona hemen erabiltzen diren tekniketako zenbait:

- Garbiketa mekaniko eta kimikoak, zikingune eta orbanak kentzeko.
- Euskarrien lehengoratzeak eta txertatzeak, zati edo atalen bat galdu duten dokumentuetan.
- Ijezketa, euskarriari lehen zuen trinkotasuna berriz izan dezan, eta erabiltzean hondatzea zailagoa izan dadin.
- Josketak eta koadernaketa berriak, jatorrizko egitura eta osaera berreskuratzeke.





▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶